

GUTUNA EDO ESKUTITZA

Paul maitea:

Egunero begiratzen dut postontzian. Baina sekula ere ez dago zure gutunik. Zergatik ez didazu idazten? Gaixorik al zaude? Edo jadanik ahaztuta naukazu?

Gaur ere esne dendan egin dut topo zure amonarekin. Ez dut uste gaixorik zaudenik. Hau esan dit: " Bai zera. Hori alfer hutsa da". Idazteak nagia edo alferkeria ematen badizu, bidal iezadazu zure ahotsaz grabatutako audio bat. Edo horrek ere nagia ematen dizu?

Zer moduz zure ikastetxe berrian? Umeak atseginak al dira? Maisua ala andereñoa daukazu? Eta nolakoa da zure ikasgela berria? Zuregandik berririk ez badut jasotzen laister, benetan ere haserretu egingo naiz.

Zure aspaldiko laguna,

Susana

***Oharra. Atzo mozorro jaialdia ospatu genuen. Zu bertan ez egona penagarria izan zen. Faltan bota zintudan.**

Christine Nostlinger
Suzi maitea, Paul maitea
SM (egokitua)

1. Irakurri, eta aukeratu galdera bakoitzaren erantzun zuzena.

- Zertarako idatzi dio Susanak Pauli?

Egun horretan gertatu zaizkionak kontatzeko eta Paulen berri jakiteko.

Haserre dagoela adierazteko.

-Zer lortu nahi du Susanak?

Pauli inbidia ematea, mozorro jailadian primeran pasatu dutela kontatuz.

Paulek bere berri ematea.

2. Adierazi esaldiak egia edo gezurra diren.

Lehen, Susana eta Paul eskola berberara joaten ziren.

Paulek Susanari bere ahotsaz grabatutako audioa bidali dio.

Denbora luzea pasatu da Paulek Susanari azken gutuna idatzi zionetik.

Paulek ez dio idazten Susanari azken gutuna idatzi zionetik.

Paulek ez dio idazten Susanari, gaixorik dagoelako.

Susana eta Paul lehen lagunak ziren, baina orain ez.

3. Osatu esaldiak.

topo egin ez ikusiarena egin ederra egin hanka egin

Gaur ere **topo egin** dut zure amonarekin esne dendan.

Katakumeekin geundela, katu ama zetorrela ikustean,
handik.....egin dugu.

Jokin ikusi dut gaur. Hark ere ikusi nau, baina..... du.

Freskagarria ordenagailura erori zaizula?..... duzu!

4. Eta ba al dakizu zer esan nahi duten hitz hauek? Aukeratu esanahi bera dutenak

maindire negarti sabel lotsati tripaki jatun

mainontziu=

tripontzi=

izara=